

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### KANPEZUKO UDALA

#### Jendaurrean jartzea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2025eko errolda

Egin da trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2025ko errolda, eta jendaurrean egongo da hamabost egun baliiodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera, interesa dutenek egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten.

Agiriak interesdunen eskura daude udal idazkaritzan, jendaurreko ordutegian.

Halaber, jakinarazten da martxoaren 1etik apirilaren 30era arte, biak barne, kobratzeko moduan jarriko direla trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2025eko erroldaren ordainagiriak, borondatezko epean ordaintzeko.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei 2025eko martxoaren 8an kobratuko zaie.

Zerga hori ordaindu behar duten zergadunek ordainketa helbideratuta ez badaukate, Kanpezuko Udalak Santikurutzeko banketxeetan dituen kontuetan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak aipatutako epean. Ordaindu aurretik zergadunek udal bulegoetan jaso beharko dituzte ordainagiriak, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bideari ekingo zaio, indarrean dagoen zergabilketako arautegi orokorraren arabera, eta ordaindu ez diren kuotak ehuneko 20ko erre-karguarekin kobratuko dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Santikurutze Kanpezu, 2025eko urtarrilaren 14a

*Alkatea*  
*IBERNALO BASTERRA TXASKO*